

TOKIKOM

2009ko urria | 86. zenbakia

aita!

txorierr

Joseba Gotzon

Gutxi batzuentzako musikaria

UNAI ELORRIAGA ZAMUDIOKO JAI AKT XIMINTX EUSKARA ELKARTEA

Parte hartu
gure Jaietan



Jaiek
euskaraz bizi!



Jaiek be,
euskara jaiki nahi!
Zamudioko herria



zamudioan
euskerari
habea egi



Parroquia
San Blas
católica - euzkera

Parroquia, 4 Inja Tel. 94 402 68 00 - 48170 ZAMUDIO (Bisaya)

Errezeleko Errezele

Errezele
Errezeleko Errezele
Errezele

Errezeleko Errezele



CENTURION kafeetegia

Errezeleko Errezele
Errezeleko Errezele

Errezeleko Errezele (Bisaya) Tel. 94 402 68 00 - 48170




Ceman López (Bisaya)
Tel. 94 402 68 00
Móvil 605 737 375

Errezeleko Errezele, 4 - Inja
48170, ZAMUDIO-Bisaya

TOLDOS
TXORIERRI
TOLDOS E. GOTOCHA

Toldoak
Barrak
Errezeleko Errezele
Errezeleko Errezele



Toldoak (Bisaya) Tel. 94 402 68 00
Tel. 94 402 68 00
Tel. 94 402 68 00
Errezeleko Errezele



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekilili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Ama-gioia Guezuraga, Pospolin, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Jon Rozadilla, Joseba Butron, Zalao Jaka, Oihana Astobieta, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea, Gotzon Barandiaran, Gaztelumendi Abesbatza, Joseba Apezetxea, Alberto Albaizar, Foto Celso, Miguel A. Lucena eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: AIKOR!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BAILA

I. ELIZABETH I. FERRAZ/PAZ/BERGARETAKO



BFA
DFB



diruz lagundutako aldizkaria




12 Unai Elorriaga

22 Zamudioko San Martin jaiak

30 Tximintx euskara elkarte

- 4 Eritxia
- 5 Gutunak
- 6 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Eguna argitu du
- 12 Gurean izan da... Unai Elorriaga
- 14 Gaztea eta... Estibaliz Heras
- 16 Tren istripua, Lezaman
- 18 Joseba Gotzon
- 22 Zamudioko San Martin jaiak
- 26 "Sortu Larrabetzu" ekimena
- 27 Publierreportajea... Etxeraino
- 28 *Luz interna* ikuskizuna, Larrabetzun
- 30 Elkarteak/Taldeak... Tximintx euskara elkarte
- 32 Txorierritarrak munduan... Pereira, Kolonia
- 33 Aikorrizketan... Istripuak Lezaman
- 34 Baserri mundua... Bertoko produktuen azoka
- 35 Azpiegiturak... Artxandako trenbide-tunela
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda





ZALOA JAKA
(Kazetaria)

Saso baten, erromatar inperioa oparotasunean egoanean, agintariak jai eta antzerakoak antolatzea besterik ez eben behar herritarren oneritxia eskuratzeko. Gladiadoreak lehoien aurrean borrokatzen ikustea zan kritika zorrotzenak be baretzeko modua. Egunotan, ordea, bestelako zirku bat montau dabe Italian. Jakingo dozue bai. Italiako Konstituzioaren kontraktatzat jo dabe Alfano Legge, hain zuzen, Silvio Berlusconi Lehen Ministroari inmunitatea ematen deustoa.

na. Eta, hori, gobernuburuak ahaleginak eta bi egin dituala momentu hau heldu ez daiten. *Il Cavaliere*, segituan, basapiztien moduan, mundu osoa bere aurka dagoela salatu dau. Antza danez, epaile guztiak komunistak dira eta Italiako presidentea, Giorgio Napolitano, "partidista" ei da.

Baina lehoi zaharra da Berlusconi! Borroka askotan hartu dau parte eta guztiak irabazi ditu. Herrialde normal batean, ostera, Lehen Ministroak dimisioa aurkeztuko eban edo bere alderdiak kargua itxitera behartuko eban. Neu bai neu! Aukera hori burutik be ez jako pasatu Berlusconi. Bai zera! Horixe baita bere izatekoaren erretratua: ahoberoa, harroa, matxista eta sasi-buruzagi halakoa. Baina benetan arduratzen nauena zera da; italiarren gehiengo handi bat oraindik be bere jarraitzaile sutsu dala. Norbaiti entzun neutson lehengo egunean, itxuraz, berorri aurre egiteko aurkari politikorik ez dagoala egun Italiako panorama politikoan. Argu-

mento hori ez da aitzaki. Ez deust balio, benetan. Herritarren loaldi horrek mesede egin baino kalte larregi egin leikio herrialde bati. Aspaldiko mamuak ez ditut nik gogoratu nahi orain baina herritarren loaldiek diktadore eta boterea helburu daben agintarien goraldia ekarri dabe sarri askotan. Pentsatu gurako neuke XIX. mendeko European horrelakorik ezin gertatu leitekela. Italiako kasuan, baina, *Il Cavaliere* hogeita hamar urteotan egin dauan kaltea sakonegia da aste batzuetan egoera bere onera ekartzeko.

Ez dakit zehazki mediterraniar itsasoko haize boladak edo bertako kultura eta ohiturak deituta izango ete dan baina italiarrak beti bere kasa. Gogora etorri jat orain momentuan Asterix eta Obelixen komikiak irakurtzen nebanekoa. Harek, Obelixek, kristo aurreko sasoiatan jada esaten eban moduan, orduan ere arrazoi osoarekin gainera, "zorotuta dauz erromatarrak honeek".

Gure Lurra miraria da unibertsoaren handitasunean. Milaka konstelazio eta izar-sistema daude, milioika izar eta eguzki eta milaka milioi planeta. Baina, dakigunetik, gurea da bizitza daukan bakarra. Harribitxi bat kosmosean, kristalezko bihotz bat.

Eta Lurrean pertsonak, elkarrekin komunikatzen, pentsamenduak eta bizitzako gorabeherak kontatzen, sentimenduak adierazten... hizkuntza askoren bidez. Zenbat, baina? Ba, gure munduan 5.000 hizkuntza inguru daude, 16 familia-koak. Zehatz esanda, 16 familia eta bat gehiago: 17. Eta European? Ba, ez da oso aberatsa: 3 familiako 54 hizkuntza.


Harribitxiak



JOSEBA BUTRON
(Irakaslea)

Europako hizkuntz familiarik handiena indoeuroparra da. Orain 5.000 urte inguru zabaldu zen eta orduko hizkuntza guztiak aurretik eroan zituen. Guztiak? Ez horixe. Euskara ez zen desagertu. Horregatik da harribitxia. Izan ere, munduko hizkuntzak sailkatzen direnean, euskara da 17. familia: familia, adarra eta hizkuntza da aldi berean. Eguzki bat da hizkuntzen kosmosean, sistema oso bat, izar bat diz-diz.

Horregatik, euskaraz egiten dugunean geu ere harribitxiak gara, eskuetan duzun AIKOR! honen moduan. Munduaren handitasunean koloretako harribitxi distiratsuak gara euskaldunok.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan. Aresti kalea 2, 48170. Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Zer da ekologista izatea?

Behar beste energia izatea gaur egungo gizartearen arduratarikoa da, ez dadila gure etxean argindarra falta. Era berean, autoetarako behar beste erregai egotea nahi dugu, eta merke, gainera. Ez dira, ez, erronka makalak, baina guk ez ditugu gure ardurapean hartzen, agintariak horien arduradun bakarrak djirelakoan.

Azken bolada honetan, eta energia elektrikoa bermatzeko, energia nuklearra indartu nahian ibili dira enpresa batzuk. Eta, egia esan, energia mota hori energia elektrikoa era seguru batean sortzeko modua izan liteke epe luzera. Baina energia nuklearraren aurkako ahotsak ere badaude: hainbat talde ekologista, esaterako. Eta guk ere aukerak ditugu gure adostasuna edo ezadostasuna adierazteko, www.yosoyantinuclear.com webgunearen bitartez, adibidez.

Ekologista izatea zer den aztertu dut askotan eta definizio zorrotz eta labur baten bila ibili ondoren, hau topatu dut: "Naturari inolako kalterik egiten ez diona da ekologista". Eta ez dakit arau hori betetzen duenik egongo den; oihan sako- nean bizi diren indigena bakar batzuk, beharbada.

Gizakiaren garapenak kaltea ekarri dio beti naturari. Ingurumena aldatzen gabiltza, basoak eta zelaiak asfaltoz, etxebizitzaz eta lantegiz betetzen gabiltza, eta ez dugu gelditzeko asmorik. Noiz arte? Sei mila milioi lagun baino gehiago bizi gara planetan, eta egunero-egunero eguzkiak ematen digun energia baino ez dugu. Jarraitu nahi badugu energia horretaz baliatzen, gutariko bakoitzak arduratsua izan beharko du. Hona hemen guztiok naturaren alde egin ditzakegun

ekintza batzuk:

-Energia elektrikoaren kontsumoa gutxitu etxean: Argiak eta elektrotresnak soilik beharrezkoa denean piztu; kontsumo gutxiko bonbillak erabili; bero-gailu



eta izozgailuaren tenperatura eta erabile-
ra kontrolatu...


-Papera, ontziak, beirak, pilak, organikoak, olioak... birziklatu eta ahalik eta gutxien kontsumitu.

-Uraren kontsumoa gutxitu. Guztiok dakigu ez direla 15 minutu behar dutxa hartzeko.

-Garraioarena ere suspenditzen dugun beste arlo bat da. Oinez egin daitekeen bidea autoz egiten dugu; ez dugu garraio publikoa erabiltzeko joerarik; eta auto barruan gidaria baino ez doa gehienetan.

Aholkuak aholku, hausnarketa egin behar genuke bakoitzak, ea gutxiegitik nahikora pasatzen garen. Mikel Laboaren abesti bat etorri zait gogora: *"Naturarekin bat izan eta [...] indarrak ongi errotuz/ gure sustraiak lurrari lotuz/ bertatikan irautea[...]".*

Jabi Lekerika





AM
 American
 Medical Association

- www.ama-assn.org
- 800.541.2261
- 312.462.5000
- 312.462.5000

AMERICAN MEDICAL ASSOCIATION
 535 N. Dearborn Street
 Chicago, IL 60610-5000
 Tel: 312.462.5000
 Fax: 312.462.5000
 Email: info@ama-assn.org



İTİKA İKUSLAN
 Mersinliye 3
 Z/VAR/0041
 Tel.: 99 352 35 18



TRAFIC JUAN ANDRÉS
 JORNALISTA LINGÜA, ENFERMERA, POLICIA, COLE
 FOTOGRAFIA, BAILARIN

CONFERENCIA JUAN
 DE ANDRÉS

“Mikel Zarate” Haur Literatura Saria

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak “Mikel Zarate” Haur Literatura Saria jarri dute abian. Sariak helburu bi ditu: alde batetik, haurrei zuzendutako irakurgai berriak sortzea; eta bestetik, idazleen lana sustatzea. Irabazleak 3.000 euro jasoko du saritzat, eta Elkar argitaletxeak plazara eramango du eleberria.

Lehiaketara Lehen Hezkuntzako ikasleei (6-12 urte bitartekoak) zuzendutako ipuinak aurkeztu ahal dira, jatorrizkoak, beste inondik moldatu gabeak, eta aurretik saririk jaso ez dutenak edo argitaratu ez direnak. Idazlanek Gutxienez 10 orrialde eta gehienez 50 izan behar dituzte. Ipuinak Lezamako udaletxera bidali behar dira 2010eko martxoaren 1a baino lehen. Euskara batueraz ala bizkaieraz aurkezteko aukera dago.

Epaimahaia 2010eko apirilaren 15a aurretik jakinaraziko du erabakia. Gutxienezko kalitateko lanik ez balego, ez litzateke saririk emango.

Lekue, finalaurrekora

Etzahun Lekue larrabetsuarrak Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalaurrekoan hartuko du parte, Bergaran. Saioa azaroaren 7an, arratsaldeko 17:30ean, izango da pilotalekuan. Lekuek 643 puntu egin zituen Leitzan izan zen txapelketaren final laurdenean eta finalaurrekoetarako txartela eskuratu zuen.



Giro itzela Zamudioko Koadrila Egunean

Zamudioztarrak Koadrila Egunaren II. edizioan bildu ziren urriaren lehenengo asteburuan. Guztira, 250 lagunek hartu zuten parte ekitaldietan, iaz baino 90 herritar gehiago. Ekimenak zamudioztarren arteko harremanak sendotzea du helburu. “Herri txikia da Zamudio eta batzuetan elkar agurtu baino ez dugu egiten. Koadrila Egunaren bidez, gure harremanak hobeak izatea nahi dugu”.

Herritar talde batek bultzatu zuen ekimena iaz, eta aurten nobedade bat egon da: irailean frontenis txapelketa antolatu zen eta finala Koadrila Egunean bertan jokatu zuten. Kirola egin ondoren, txupinazoa bota eta poteoari ekin zioten. Ge-

roago, bazkaltzeko ordua etorri zen, eta bapo jan eta gero, herri kiroletan aritu ziren. Jardunaldia biribiltzeko, herriko tabernetatik poteo egin zen arratsaldean fanfarreak girotuta. Gautxoriek Derioko jaietan amaitu zuten eguna.

Antolatzaileak pozik agertu dira ekitaldian gero eta jende gehiago batzen delako, eta guztiek primeran pasatzen dutelako. “Etorri ez diren batzuek esan digute datorren urtean ziur etorriko direla”. Era berean, 2010. urteko Koadrila Egunean parte hartzeko gonbidapena luzatu diete zamudioztar guztiei. Beste alde batetik, tabernariei eman dizkiete eskerak, emandako diru-laguntzarengatik.



Argazkia: Joseba Apezetxea

Sariak abenduaren 19an banatu-ko dituzte, 12:30ean, kiroldegiko Kul-tura Aretoan. Guztira, hiru sari bana-tuko dira: 300 euro eta diploma, bil-dumarik onenari; 200 euro eta diplo-ma, argazkirik onenari; eta 100 euro, derioztarrek egindako argazkirik onenari. Parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra jasoko du. Lan onenekin erakusketak bat egingo da, abendu-aren 19an bertan inauguratuko dena.



Ikasturte berriari ekin diote Literatura Eskolakoek

Larrabetzuko Literatura Eskolak ateak zabaldu ditu seigarren ikasturtez. Iñigo Aranbarri idazleak hasiera eman dio urtean zehar egongo den hitzaldi sailari urrian, eta hizpide Joseba Sarrionandiaren saiakera izan du.

Ikasturte osorako matrikulak 15 euro balio du; eta 10 euro, saio bate-rako. Izena ematea literatura.org web-gunean edo eskola@literaturaeskola.org helbide elektronikoan egin daiteke. Saioak maiatzera arte egingo dira Euskal Herriko hainbat txokotan.

Beste alde batetik, Literatura Eskolak eta herriko hainbat eragilek Literatura ekimena egin zuten ekai-nean. Haren balorazioa egin ostean, ekimena datorren urtean ere antolatzearabaki dute. Literatura 2010. urteko ekainaren 4, 5 eta 6an izango da Larrabetzun.

Berasategi, brontzea Hawaiin

Urrian World Championship 2009 Ironman proba izan da Kona irlan, Hawaiin. Virginia Berasategi Sondikako triatloilariak hirugarren postua lortu zuen, ergin zuen marka 09:15'28" izan zela. Parte-hartzaileek proba hauei egin behar izan zieten aurre: 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42,195 kilometro korrika.

Ametsak egia bihurtu dira



Sondikoztarrek euren nahiak egia bihurtzeko aukera izan dute urrian, modu sinbolikoan izan bada ere. "Ostegun miraritsuak" proiektuaren haritik ekitaldi sorta zabala antolatu da hilaren 3an. Umeak, gazteak zein helduak mozorroto egin ziren eta euren bizikletak apaindu ere egin zituzten. Txirindulariek martxa egin zuten udalerritik zehar, bidegorria egin dezatela eskatzeko.

Goiri Erdikoa plazan informazio-gune bi jarri zituzten: bata "Ostegun miraritsuak" proiektuari buruz, eta bestea Sondikaren historiari buruz. Belaunaldi ezberdinetako herritarrek ere euren historia kontatzeko aukera izan zuten, eta asko izan ziren guneetara argazkiak eraman zituztenak eta besteei pasadizoak kontatu

zizkietenak. Era berean, 20 laguneko koa-drila batek txokotzat erabili zuen Kultura Areto II-a.

Arratsaldean nahi eginezinen txanda izan zen. Argiek, koloreek eta soinuek lagunduta sondikoztarrek hausnarketa egin zuten mirarien gainean. Gauean taldeko dantza egin zuten herrigunetik udal-letxera arte, zeinetan itzalak, esku-argiak, ahotsak eta makilak protagonista izan baitziren. "Ostegun miraritsuak" ekimena Xelo Bosch eta Cyrille Larpenteur artistek eta CONSONNI arte ekoizpen-etxeak bul-tzatutako proiektua da. Ekimena maiatzetan jarri zuten abian eta handik hona sondikoztarren nahiak, iradokizunak eta kexak biltzen ibili dira iniziatiba ezberdinen bidez.



Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



ARLAN

ARLAN

ARLAN

Arri zuri argi...



902 54 08 54

Derio modaz jantzi da

Urriaren lehenengo zapatuan moda desfilea egin zuten Derion. Ekimena Danerik Paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarrekin antolatu zuen eta, horretarako, Udalaren laguntza jaso zuen.

Desfilearen aurreko edizioak esparru itxietan izan dira, baina "oraingo honetan zerbait erakargarriagoa egin nahi izan dugu eta kalera atera dugu desfilea. Herritarrek atsegin izan dute inizatiba eta asko izan dira desfilea ikustera hurbildu direnak", esan digu Rocío Vidal elkartearen presidentek.

Ibiltokia Sollube kalean inprobisatu zuten eta haren inguruan 200 aulki ipini zituzten. Hala ere, ekimenak hain ikusmin handia sortu zuen ezen lagun askok zutik ikusi behar izan baitzuten desfilea. "Jende gehiago zegoen zutik eserita baino".

Ibiltokiaren gainean 65 derioztar ibili ziren eta herrian bertan topa daitezkeen moda eta estetikaren azken joerak erakutsi zizkioten publikoari.

Merkataritza txartela

Danerik Paraje! Elkarrekin zerbitzu berria jarri du bezeroen eskura: Derioko merkataritza txartela.

Txartela doan eska daiteke elkartearen kide den edozein dendatan edo Nafarroako Rural Kutxan, eta abantaila ezin hobeak eskaintzen dizkie bezeroei. Txartelaren jabe denak hiru hileko epean ordaindu ahal izango ditu erosketak,



Argazkia: Foto Celso

inolako errekargu barik. Gainera, epea luzatu nahi badu, lehentasunezko interesak lortzeko aukera izango du.

Derion erostea inoiz baino erosoagoa izan dadin, bezeroak nahiago duen banketxean helbideratuko dira merkataritza txartela erabiliz egiten diren ordainketak. Era berean, txartelaren jabeak onura atera ahal izango du promozio berezietatik: deskontuak, opariak lortzeko puntuak eta zozketak, esate baterako.

Txorierriko Ipuin Lehiaketa

Mankomunitateak Txorierriko Ipuin Lehiaketa antolatu du 12. aldiz. Adinaren arabera, bost kategoria osatuko dira: A, zazpi urtera arte; B, zortzi eta bederatzi urtekoak; C, 10 eta 11 urtekoak; D, 12 urtetik 15 urtera bitartekoak; eta E, 16 urtetik gorakoak. Kategoriako sari bi emango dira; eta herri bakoitzeko, accesit bi. Accesitak Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larra-betzuko sari gabeko bi ipuin onenei emango zaizkie.

Lanak euskaraz izango dira. Gaia librea da eta ipuinek jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan behar dute. Besteak beste, imajinazioa, sormena eta presentazioa hartuko ditu kontuan epaimahaiak. Sari banaketarako eguna eta lekua aldezturik jakinaraziko da eta epaimahairen erabakia apelaezina izango da. Lanak ez dira lau orrialde baino luzeagoak izango eta parte-hartzaile bakoitzak ezin izango du lan bat baino gehiago aurkeztu.

Ipuinak gutun-azal handi batean aurkeztuko dira eta kanpoko aldean kategoria eta udalerria idatziko dira. Gutun-azal barruan ipuina eta beste gutun-azal txikiago bat sartuko dira. Gutun-azal txikiaren barruan datu hauek idatziko dira: izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa. Lanak azaroaren 30era arte aurkeztu daitezke Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.



Dai Euskarari Ziurtasuna
belkora eta herriak elkarrekin - valor e herriak elkarrekin

1.800 erribila baino gehiago jar daude



ERANDIO
HENDIAIA
IRUNEIA
AGURAIN
DONDOSTIA
URRETA
GASTEIZ

Donostia



Donostia

Iñigo Aurrekoetxeak 57 cm-ko marka lortu du Harri-zulatzailleen Banakako Txapelketan, eta horri esker hirugarren postua eskuratu du. Proba urriaren 18an jokatu zen eta Iñigoren iritziz, hura oso zaila izan zen, harria oso gogor zegoen-eta. Saio horrek amaiera eman dio harri-zulatzailleen denboraldiari. Emaizta polita eskuratu dute aurtien Txorierriko harri-zulatzailleek. Izan ere, lehenengo postua lortu dute Ligan; bigarrena, Binakako Txapelketan; eta hirugarrena, bai Euskal Herriko Txapelketan, bai Banakako Txapelketan.



Plazaren traba arkitektonikoak kendu eta irisgarritasun arauetara egokitutako arrapala bat ipiniko da udaletxera sartzeko. Oinezkoentzako sarbidea egingo da autobus geltokira arte eta azken hau elbarrituentzat egokituko da. Udaletxearen atzealdea norabide bakarrekoa izango da

eta haren zati bat oinezkoentzat molda-
tuko dute. Inguruan pasabide alternati-
boak aurreikusi dira. Era berean, umeen-
tzako aisialdi-gunea egingo da eta gune
estaliak jarriko dira, eguzkitik zein euritik
babesteko. Argiztapenari dagokionez, fo-
ku handiak jarriko dira erdialdean eta zir-
kulazio-guneak zein pasealekuak-eta ere
argiztatuko dira. Plazaren berezko ele-
mentuak mantenduko dira: landareak eta
iturria, esate baterako. Hala ere, plazaren
ezkerraldean dauden bananondoak ken-
duko dituzte, informe teknikoek hala
aholkatuta. Izan ere, lanen ondorioz ez da
bermatzen horiek bizirik irautea.


ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, S.J.



**Baserriaren Alkartea
Iezama S. Coop.**

Arandurra, 71 800.
48961 IZAMA.
☎ 94 100 48 16
8 maila, Iratxe/Plaza
Iratxe 46. 144


*Puntu
irratietan*



Argitu du eguna

Egunsentia, Txorierrin: ikuskizun bat da, patxadan ikusi beharrekoa, naturaren ederraz gozatuz, nahiz eta natura hori, zoritzarrez, giza-kiak aldarazten duen batzuetan.

Argazkia: Iñaki Aránguiz (DAT, Derioko Argazki Taldea)



multiprecio
Rakel

Verónica Rivas - 91600800
Teléfono de atención al cliente: 916 00 0000



COLECCIÓN CASA DE
CASA DE
20.000.000.000
Banco de España
100.000.000.000

Comunicación y Tecnología
T: 94 454 55 55



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOCIONES-GERENCIACIÓN
LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN MAILAKO ERAKUNTZAK: LEHISTE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERKATASIN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaio eta merkatu, TFE (Lezama)
Lezama (Bizkaia)

“Aurreko liburuetako estiloarekin aspertu naiz; orain beste estilo bat landu gura dut”

UNAI ELORRIAGA | idazlea

Unai Elorriaga izan genuen Larrabetzuko “Literaturaz berbetan” literatura-zaleen bilgunean. *Londres kartoizkoa da* liburuaz berba egitera ekarri genuen gurera. Irakurleekin berbaldia izan aurretik, gure galderei erantzun zien.



t: Gotzon Barandiaran / a: Elkar

Londres kartoizkoa da izenburuak zelango garrantzia du nobela ulertzeko?

Garrantzia du, zelan ez, eta liburuaren amaieran azaltzen da zergatik duen garrantzia. *Sargazo itsaso zabala* liburuiko protagonistari gertatzen zaion pasarte batetik hartu nuen.

Eta nobelako protagonisten izenak ere, horren garrantzitsuak dira izenak?



Bai, baita ere. Uste dut idazle asko ez dela konturatzen izen bat aukeratzen denean pertsonaiari itzelezko karga, zama ezartzen zaiola. Pertsonaia bati izen jakin bat ezartzean, historia bat, geografia bat ezartzen zaio eta ondorioz irakurleak baldintzatuta hasten du bere irakurketa, ez da esentziatik irakurtzen hasten. Horregatik, liburuak aukeratu ditudan pertsonaien izenak irakurrita, Europako edo munduko edozein lekutan gerta daitekeela irudikatu gura dut. Irakurleak mamiai erreparatzea gura dut, ez testuinguruari.


Nobelako protagonista Sora da, inon agertzen ez dena. Zeren irudia da Sora?

Gatxa da. Sora nobelaren funtsa da, ez ezeren irudia edo figura.

Liburua lau zatitan banatu duzu. Ostera, bi zati nagusi daudela esan genezakeela deritzozu?

Bai, nobela lehenengo biak dira eta zehatzagoa izanda esango dut nobela lehen zatia dela. Bigarrena jolas moduko bat da eta azken biak nobelari amaiera emateko erabili ditut, errematea emateko. Egia esan, batek baino gehiagok aurpegiatu egin dit azken biak arinegi kontatu ditudala. Nobela lehenengo bietan kontatuta, ira-





kurlea ez aspertzeko arin amaitzea dela egokiena erabaki nuen.

Diktadurak hausnartzeko proposamena luzatu diguzu Londres kartoizkoa da nobelan. Nongo iturriak zabaldu dituzu, bertatik bertarakoak edo inongoak?

Nahasketa egin dut, baina, beti ere, ondoen ezagutzen duguna bertokoa da, gura zein gura ez. Diktadurarik bizi izan ez badugu ere, horrek ez du esan gura gugan eragin izan ez duenik, eragina handia eduki du. Gauza asko dago Frankoren diktaduratik eta osetatik. Izan ere, akzioa, liburuan gertatzen dena, diktaduratik hamabost urtera gertatzen da eta hori guk bizi izan dugu eta ikusten dugu zelango keinuak dauden oraindik. Hala eta guzti ere, ez nuen gura bertokoa, gurea, nabarmen agertu, horregatik sartu ditut Argentinako edo Txileko edo Kanboia edo Hegoafrikako diktaduren ezaugarriak, denen arteko nahasketa egiteko.

Liburu honetako gertakari gehienak teiltatuetatik ikusten dira. 17. teiltatua kokaleku garrantzitsua da. Diktadura berbagai badugu, zergatik teiltatuak eta ez sotoak?

Niretzat garrantzitsua da teiltatuen. Teiltatuetatik gauzak diferente ikusten dira, altura batetik gauzak diferente ikusten dira eta herri osoa teiltatuen badago herri osoa da diferente ikusten duena. Bestalde, kontuan hartu behar dugu diktaduren ezaugarrietako bat, zapaltzen duen herriaren nortasuna ezabatze ahalegina dela. Diktadurak herriaren ezaugarriak ezabatu gura izaten ditu. Ezaugarri inportanteena hizkuntza da eta, hizkuntza hori ulertzen ez bada,


“Pertsonaia bati izen jakin bat ezartzean, historia bat, geografia bat ezartzen zaio”

“Liburuko gertakari gehienak teiltatuetatik ikusten dira; inportantea da, teiltatutik diferente ikusten direlako gauzak”

kontrolatzen ez denez, desagerrarazi egin behar da. Horri kontra egingo zion, aurre egingo zion ezaugarri bat eman gura izan diot liburuan agertzen den herriari, eta ezaugarri hori teiltatuetan bizitzearena da.

Piroteknia ere alboratu egin duzula azpimarratu duzu beste elkarrizketa batzuetan. Zein motatako piroteknia erabili izan duzu aurreko liburuetan? Zenbateraino da norbera idazteko era aldatu duenaren jakitun?

Estiloa sikatu egin dut. Estilo eutsia da. Ez dago metaforarik, ez dago ezer. Ni neu aspertu egin naiz aurreko liburuetan erabili nuen estiloarekin. Egia esan, asko disfrutatu izan dut estilo harekin, baina hiru liburu egin ditut eta nahikoa dela iruditzen zait, orain *SPrako tranbia* hartu eta txarra dela iruditzen zait.



"Mihisea eta biok gara; ezer ez

t/a: Itxaso Marina

Zer da margolaritza?

Neure bizitza, dudan zaletasun handiena, baina neure buruarentzat egiten dudana. Arte Ederrak ikasi ahalko nituzkeen, baina karrera hori ez aukeratzea erabaki nuen azkenean. Ziur nagoelako, margolaritza ogibidetzat hartzen badut, galdu egingo duela gaur egun niretzat duen xarma.

Zergatik erakartzen zaitu horrenbeste?


Arazoak-eta ahazten laguntzen dida-lako. Margotzen dudanean, araurik gabeko mundu batean egongo banintz bezala da: mihisea eta biok gara; ezer ez gehiago.

Sondikan ematen den pintura tailerrean sei urte zenituela hasi zinen. Oraindik duzu zer ikasi?

Jakina! Zeure estiloan edo teknikan oso ondo ibili arren, beste bide batzuk ere azter ditzakezu. Adibidez, nik olioiz margotzen dut eta teknika hori nahiko ondo menperatzen dut. Baina ez nago jantzita akuarela edo pastel tekniketan. Tailerrak teknika horiek ikasteko aukera ematen dit. Gainera, gero eta gauza arraroagoak egiten gabiltza: aguaplasa erabiltzen dugu margoetan, harea, kartoia... Eta beste pertsona batzuekin egoteak abantailak dakartza: eurengandik ikas dezakezu.

ESTIBALIZ HERAS | pintore afizionatua


Pintzela txiki-txikia zela hartu zuen lehenengoz, eta harrezkero adiskide mina du. Oso neska saiatua ez dela aitortu arren, alde batera utzi ez duen gauza bakanetako bat margotzea dela dio. Hogeita lau urteko sondikohtar honek Medikuntza ikasketekin uztartzen du bere zaletasun handia: margolaritza.



Bizian
Fisioterapia
& Osteopatía

Erribilla: Solina Asplaza
1. floor (piso) - 1.º - 17.
Calle Llanos de la Virgen
48900 Leizor (Bizkaia) - 48900
Tel: 944 498 577
www.bizian.es

Zamakoia 31. behean
48900 Leizor (Bizkaia)
Tel: 944 562 279
Fax: 944 498 577
www.bizian.es



bentitu zeure
gorputzean
bizitza kalitatean

gehiago"

Zelako pintorea zarela esango zenuke?

Neure estiloan nahiko ondo moldatzen naizela uste dut. Gakoa beldur ez izatea da, eta nik ez diot beldurrik ez pintze-
li, ez mihiseari, ez errakuntzei.

Eta zein da zure estiloa?


Emakumeen gorputzak margotzea gustatzen zait, paisaiek, esaterako, baino gehiago erakartzen nautelako. Gorputza, aurpegia, keinuak... zelan margotzen diren, gauza asko adierazi ahal dute. Adierazgarriagoak dira, nire ustez.

Oloioz margotzen duzula aipatu duzu lehen. Zergatik oloioz?

Aukera ematen dizulako hura beste teknika batzuekin batera lantzeko. Esan dudan moduan, olio margolan batean harrea erabil daiteke, kartoia... Era berean, aukera gehiago ematen du pintatzeko, koloreak nahasteko eta zuzenketak egiteko.

Zein pintore duzu gogokoen?

Van Gogh bezalako pintore inpresionistak gustatzen zaizkit; baita ere Gauguin, Monet... Eta nahiz eta surrealista izan, Dali ere gustatzen zait asko, pintatzeko oso era errealista zuelako, nire ustez. Goya ere gustatzen zait, garrantzi handia ematen ziolako pertsonaien adierazkortasunari... Pintore klasikoak ez zaizkit gehiagi gustatzen, oso onak baziren ere, pinturako



"Emakumeen gorputzak margotzea gustatzen zait, askoz adierazgarriagoak direlako"

arau akademikoetara gehiagi mugatzen zirela pentsatzen dudalako. Izan ere, inportanteena pintoreak adierazi behar duena dela uste dut; eta gero, koadroa publikoari gustatzea edo ez, bigarren mailako kontua da.

Eta gaur egungo pintoreei dagokienez?

Aitortu behar dut ez ditudala asko eza-

gutzen. Hala ere, pintura erakusketetara joateko ohitura dut; eta berdin dit pintore ezaguna bada edo ez. Lanean jartzen dut arreta, ez izenean.

Senideek eta lagunak eskatuko dizute koadroren bat egiteko...

Baita eskatu behar ez duenak ere. Koadro bakoitza nire zati bat da eta ezin diot edonori eman.

Koadrorik saldu duzu inoiz?

Dirua eskaini didate koadroren baten truke, baina ez naiz saltzeko gauza izan. Neure lanik saltzekotan, enkarguzkoa izan beharko luke.

Erakusketarik egin duzu?

Bai, baina tailerrekoekin batera. Inoiz erakusketa neuk bakarrik egitea gustatuko litzaidake, baina hori koadro gehiago dudanean egin nahi dut.



**Familie zonder
kennelijke grenzen,
want wij niet**

**u bent u ook een
ZANDVOORT
hortikolleen**

**Wilt u een heerlijk
tuinplekje met
groenten en bloemen
in uw achtertuin?**

**Wilt u een heerlijk
tuinplekje met
groenten en bloemen
in uw achtertuin?**

Stomoxys calcitrans
MICHEL
"BOUTIQUE
DES PAPIERS
D'ART ET
D'ARTISTES"
100, rue de la
Liberté, 10000
Paris, France

Michel Perrier, 24 rue de la Liberté - 69006 - 01 47 43 43 44

[illegible]

WILLIAM W. HARRIS
 Director, **WAMEN** Institute
 10000 Sunset Blvd., Suite 100, Los Angeles, CA 90067



LEARNERS **BATZOKIA**

COMBINE YOUR
LEARNING AND BUSINESS SKILLS
10% OFFER FOR 10% OFFER

LEARNING AND BUSINESS SKILLS
10% OFFER FOR 10% OFFER

LEARNING AND BUSINESS SKILLS
10% OFFER FOR 10% OFFER

dago ez Lezaman, ez Atxurin". Horrezaz gainera, Lezamako geltokian trenan ormatik oso hurbil gelditzen dela aipatu dute. Euren ustez, trenbideak luzeagoa izan beharko zuen, gidariak tarte handiagoa izan dezan trenan geldiarazteko. Era berean, geltokian zirkulazio-diskoa (semaforoa, autoetarako) jartzea lagungarritzat jo dute.

AIKOR! aldizkariak Euskotrenean jo du informazioa argitzeko asmoz, baina ez dugu erantzunik jaso.

Beste alde batetik, Lezamako Udalak idazki bat agindu zien Euskotreneko arduradunei, istripuaren gaineko datuak eza-gutu bezain laster eurei jakinarazteko. Alaitz Etxeandia alkateak esan digun be-zala, ale hau itxi orduko, Euskotrenekoak

*“Geltokira heltzerakoan,
gidariak abiadura
gutxitzen ez badu,
Euroloop sistemak
geldiarazten du trena”*

ez dira eurekin harremanetan jarri, eta istripuari buruz dakitena komunikabideen bitartez ezagutu dute. Udalak ez du ofizialki jakin tren geltokian Euroloop galgatzeko sistema dagoen ala ez, edo, horren ordez, beste segurtasun sistema batzuk dauden. Udalak bilera egiteko eskatu die Euskotreneko arduradunei, ikerketaren berri izan eta geltokian dauden segurtasun sistemak ezagutzeko. "Ezin da istripu gehiagorik gertatu, eta hartu beharreko segurtasun neurri guztiak hartzeko eskatuko diegu". Eskaera bera egin dute gure erredakziora jo duten hainbat lezamarrek eta txorierritarrek. Guztiek ados daude trena eta garraio publikoa bultzatu behar dela; hala ere, tren modernoagoa eta segurua eskatu dute Txorierriako.

“Hiru kolpe entzun nituen”

Ixone tren geltokiaren ondoan bizi da eta arratsaldeko 4:25ean oso zarata handia entzun zuen. Kalera jaitsi eta istripua gertatu zela ikusi zuen. "Jendea oso urduri zegoen, ikaratuta. Trenaren lehenengo bagoia erabat hondatuta zegoen eta nahasmena nagusi zen". Nasan sei lagun zeuden trenaren zain. "Trena bihurgunea hartu zuenean, abidura handiz zetorrela ikusi genuen, eta talka oso arin gertatu zen", esan digu Gotzonek. "SOS deiak zerbitzura deitu eta Ertzaintza, ambulantziak eta suhiltzaileak handik gutxira etorri ziren. Mutil batek ateari ostikada eman zion eta bigarren bagoitik atera zen. Lehenengo bagoian emakume bi zeuden. Batak zauri arinak zituen eta oso urduri zegoen; bestea, eserlekuen artean zegoen etzanda".

David Hormaza lezamarrak arratsaldeko lauetakoa trena hartu zuen Bilbon. Bere esanetan, bidaian zehar ez zen ohiz kanpoko gauzarik gertatu, eta Kurtzeko geltokian hiru bidaiari jaitsi ziren trenetik. Athleticeko instalazioen parean zeudela trenak bat-bateko mu-

gimendua egin, eta gero eta abiadura handiagoa joan zen hartzen. “Lezama iragartzun duen horma-irudiaren pare-tik pasatu ginenean, trena ez zela geldituko konturatu nintzen. Eserlekuen artean uzurtu nintzen... eta hiru kolpe entzun nituen. Altxatu nintzen eta ondo nengoela ikusi nuen”. Leihoetako kristalak eserlekuen gainera eta zorura erori ziren eta irteteko atea okertuta zeuden. “Ostikadaka hasi nintzen atea-ekin eta handik ateratzea lortu nuen”. David eta emakumeetarik bat Galda-kaoko ospitalera eraman zituzten eta alta egunean bertan eman zieten. Beste emakumea, berri, Gurutzetako ospita-leko Bizkortzerako Unitatera eraman zuten, garezur-entzefaloko eta aurpegi-ko traumatismoa zuela. Emakumeak onera egin du, baina ospitalean jarraitzen du.

Trenak geltokian dagoen bost metroko topea jo zuen, eta, ondorioz, lehenengo bagoia erabat suntsituta gelditu zen. Gidaria kabinan zegoen harrapatuta eta suhiltzaileek lau ordu eman zituzten gorpua handik ateratzeko.



Trenam

WALL IN AMERICA'S FUTURE
AS A COLLEGE

Cape Fear College Museum
WALL IN 2009

Walla Walla College
WALL IN 2009

WALL IN 2009: WALL IN AMERICA'S FUTURE
WALL IN 2009: WALL IN AMERICA'S FUTURE

Continuing Education

Active Challenge

Registration fee: \$100

6-9 875 798

Support your success
+800 863 8636

For more information
Call 800 863 8636

"Artean ez dago mugarik"

JOSEBA GOTZON | musikaria

Ezkerraldetik etorri zitzai-
gun Joseba Gotzon musika-
ria duela sei urte, eta gutako
bat da dagoeneko. 2009a
urte berezia izan da bera-
rentzat. Izan ere, 25 urte
pasa dira lehenengo diskoa
plazaratu zuenetik. Loiutarra
urteurrena ospatzen dabil,
eta AIKOR! aldizkariak zorio-
nak eman dizkio.



Hogeita bost urte pasa eta gero, zer pentsatzen duzu atzera begiratzen duzunean?

Hala da, 25 urte pasa dira lehenengo diskoa atera nuenetik, baina 12 urte nituela hasi nintzen musika ikasten. Atzera begiratzean, egoera historikoa etortzen zait burura. Jendeak izugarrizko ilusioa zuen 80ko hamarkadan eta jarrera hori desagertu egin da. Gainera, euskarak aurrera egin badu ere kalean ez da entzuten. Kulturak atzera egin du mende honean, nahiz eta hura zabaltzeko modu gehiago egon.

Eta zure musikari dagokionez, nolako bilakaera izan duzu?

Historikoki galduta hasi nintzela esaten dut txantxetan: ez nuen kantautoreen garaia bizi, ezta euskal rock radikal izenekoarena ere. Gauza berriak egiten saiatu naiz beti: lehenengoa izan nintzen Euskal Herrian funkya jorratzen, edo bossa nova, jazz eta pop estiloak uztartzen. Ez dut beste kantautore batzuen -Gontzal (Mendibil), edo Ruper (Ordorika), esaterako- beste arrakasta lortu, baina berdin dit. Kantautore askok utzi diote kantatzeari, eta nik eszenatokiaren gainean jarraitzen dut. Hori da garrantzitsua.

Ospakizun bereziren bat egingo duzu urteurrena ospatzeko?

Bira udaberrian hasi eta orain amaitu dut. Areto txikietan ibili naiz, gusturago bainago. Izan ere, harreman estuagoa sortzen da publikoarekin. Areto handietan, aldiz, jendea hitz egiten, edaten edo jaten dabil zuri entzuten dizun bitartean.



Kontzertu txikietan inplikazio gehiago dago. Beste alde batetik, disko bi kaleratu nahi ditut datorren urterako: batean, pop-rocka landuko dut; bestean, nire kantautore sena askatuko dut. Estilo biak lantzea

gustatzen zait.

Zure ustez, zein da zure lanik onena?

Zaila da. *Fotopoemak* aukeratuko nuke, agian. Oso disko intimista da eta oparoena, alde guztiak kontuan hartuta: musika, ekoizpena, moldaketak...

Kanpoan ibili zara askotan. Nolako harrera egin dizute?

Ona. Aspaldian konturatu nintzen kantatzen jarraitzeko, kanpora atera behar zela. Euskal Herriak oso merkatu txikia du eta artista asko gaude. Ez dago lekurik guztiontzat. Inguruan jotzea ere zaila da. Bitxia da baina, nire ustez, Venezuelan Burgosen baino errazagoa da kontzer-

Joseba Gotzon primeran dabil ospatzen 25. urteurrena: bira egin du eta bi disko plazaratuko ditu datorren urtean



Hästens dena den
Guztiz onartutako
nirak

ARTEAGA koltxoi-denda
Berriko Seginaria • 94 454 51 47 • bERRIO

“Lehenengoa izan nintzen Euskal Herrian funky jorratzen, edo bossa nova, jazz eta pop uztartzen”

“Bitxia badirudi ere, Venezuelen Burgosen baino errazagoa da kontzertuak eskaintzea”

“Nazioarteko enpresek ezartzen duten merkatutik kanpo egon arren, musikatik bizi ahal da gaur egun”



Txorierritar “berria”

Joseba Gotzon Varela Portugaletekoa da, eta bertan hasi zen musika ikasten 12 urte zituela. “Solfeoa ikasi nuen herriko udal bandan. Institutuko garaian borbor zeuden kultura eta politika, eta nik bat egin nuen mugimendu handi horrekin. Kontzertuak eskaini eta kantak lantzen hasi nintzen orduan”.

Geroago Bilbora joan zen bizi izatera, eta hortik Txorierrira, Loiura, duela sei urte. “Deustun bizi nintzen, eta umea txikia zela, noizean behin Loiura etortzen ginen aisialdian. Herria gertu genuen, eta Deustun ez zegoen berdegunerik. Etxeak politak irudituz zitzaizkigun eta haurrak Lauro Ikastolan ikasten zuen. Horregatik, hona etortzea erabaki genuen azkenean”.

“Harreman handirik” ez du loiuztarrekin, baina “pozik” bizi da familiarekin. Hala ere, zorra du oraindik txorierritar guztiekin. Izan ere, ez du inoiz haranean kontzertu bat ere eskaini. Berak ez dio garrantzirik ematen kontuari eta “horren inguruan pentsatzen ez duela” esan digu.

tuak eskaintzea. Horregatik, urrunera joan naiz: Argentina, Txile, Georgia edo Kataluniara, besteak beste. Askotan atzerrian etxean baino sentsibiltate handiagoa adierazten dizute. Adibidez, Argentinan kultura-ondasuntzat hartu zuten nire kontzertua. Hemen, ordea, erakundeek ez diote errespeturik kulturari. Hemengo kultura-programatzaileak kanpoan egiten diren jaialdietara joaten dira, baina bertokoa ez dute ezagutzen.

Zure azken lana *Artistas en ruta* ekimena da. Zelakoa da?

Hori hiru hilabeterik behin Sociedad de Artistas Intérpretes o Ejecutantes de España (AIE) elkarteak antolatzen duen ekimena da. Estatuko hainbat herrialde-tako artistok bertan parte hartzeko eskaera egin, eta eurek onenak aukeratzen dituzte. *Si has llegado a destiempo* kantua sartu dute diskoan. Ekimenak nire musika beste publiko mota bati erakusteko aukera eman dit.

Nazioarteko enpresek ezartzen duten merkatutik kanpo egoten saiatzen zarela irakurri dut. Ez duzu musikatik bizi nahi, ala?

Irrati eta telebisten monopolioak ezartzen du merkatua. Eta zenbat artista sartzen dira bertan? Nazioarteko enpresek esaten dituztenak, hau da, oso gutxi; eta gehienak merkatutik kanpo gabiltza. Adibidez, Kiko Veneno: garai batean, bere kabuz hasi zen kontzertuak egiten eta diskoak plazaratzen. Eta merkatuak erantzun egin zion. Javier Krahe edo Amancio





Prada ere aipatu ahal ditut. Horiek ez dira irratan edo telebistan agertzen, ez dira famatuak, baina 70 kontzertu ematen dituzte urtean. Nahiz eta merkatutik kanpo egon, musikatik bizi ahal dela esan nahi dut; jendeak kalean ez zaitu ezagutuko, agian, baina hori ez da garrantzitsua.

Ezagunagoa zara musika dela-eta, baina liburuak ere eraman dituzu plazara. Komunikatzeko grina duzu, ezta?

Batzuetan gauzak berez doaz aurrera. Nik sormenari ekin baino, ikerketak egin ditut: Portugaleteko musikaren historia idatzi nuen, eta horrek zortzikoteen historia ikastera eraman ninduen. Eta hori

dela-eta, liburu batzuk argitaratu genituen. Gainera, zortzikoteen inguruko jaialdia ere antolatzen dugu, mundu mailan egiten den bakarra. Beste alde batetik, futboleko euskal selekzioaren historia ere batu genuen liburu batean, eta batzuetan baimena eskatzen digute han agertzen den informazioa erabiltzeko. Horrek harrotasuna sorrarazten dit, baina horrelako liburuak ez zaizkit ekonomikoki merezi, egiten ordu gehiegi eman behar dudalako.

Aipatu dugun bezala, denetarik egin duzu. Zein da zure muga?

Artean ez dago mugarik. Nirea ibilbide anitza da.


Ibilibide luzea

DISKOAK

1984: *Gau Hotzak* (Hilargi).
1985: *Inpotentzia* (Hilargi).
1987: *Botere Zalantzakoak* (Hilargi).
1990: *Kalapo* (Hilargi).
1994: *Made in Ris* (Elkar).
1999: *Noegga, historias y leyendas* (Nojako Udala).
1999: *Nortasuna* (Keinu).
2003: *Fotopoemak* (Marrodán Olerki Elkarte).
2006: *Gris* (Autoprodukzioa).
2007: *Padelitis*.
2009: *Artistas en ruta*.

ARGITALPENAK

1990: *Nataliaren lilura* (Hilargi).
1997: *Ochote Danok-Bat* (1932-1987).
1997: *El ochote en Sestao*.
1998: *Euskal Herriko Otxote Historia*.
1998: *Euskadiko Futbol Selekzioaren Historia* (Beitia).
1998-1999: *Portugaleteko Musika Historia* (Egilear).
2001: *Nortasunaren ispilua* (Beta).
2002: *Historia del ochote en Cantabria* (Kantabriako Gobernua).
2005: *Otxote Bilbo Argia* zortzikote. 25. urteurrena (Ed. Argia).



metal-arrolzeria
rasan, s.l.

PVCzko leihoak
Sistema eta harrizko-bermenduak
Leiho mistoak (ogur eta aluminiozkoak)
Zutabe termokuztaren instalazioak



 FOMALURRA® berrikuntza aldiarekin

ERABOLKIZKETA
☎ 94 94 441 80 31
Zorrotza, Euzko Garbierako Lantegia, 2
48940 Barakaldo

LANTEGIA
☎ 94 410 33 02 - fax: 94 410 33 58
Euzko Garbierako Lantegia, 42
Pozoren 1, 48940 Barakaldo, 48940 Barakaldo
48940 Barakaldo

PAJUL ☎ 928 747 701

www.rasan.com
rasan@rasan.com



Sanmartinak dabez prest



Jai usaina dago Zamudion; herria apaindu bakarrik falta da. Eguraldi ona jai batzordeak beharrak egin dauz, eta azaroaren 11tik 15era bitartean publiko guztientzako ekitaldiak osatutako jai-egitaraua eskainiko deutesee zamudioztarrei.

a: Zamudioko Udala

Lagatzuk 10 urte bete dauz, eta eus-kera alkarteak jaiei hasierea emoteko ardura hartuko dau azaroaren 11n, eguaztenean. Aurtengo jaietako Kartel Txapelketearen irabazleari saria emon ostean, kalejiran urtengo dira zamudioztarrak buruhandiek lagunduta.

Eguenean Mus eta Briska Txapelketak egingo dira Adintsuen Etxean, eta Lor eta

Triki Take taldeek musikea iminiko deutesie barikuko gabari. Zapatuan egun zala-partatsua eukiko dabe zamudioztarrek. Ekintzak goiz-goizetik hasiko dira, eta eguerdiko 3etan herri-bazkaria egingo da indarrak barritzeko. Narcis Roca *stuntman*ak motorragaz oso iaioa dala erakutsiko dau Kotxozulo parkingnean, eta herriko koadrilek indarrak neurtzeko aukerea izango dabe hainbat probatan. The Uski's, Obrint Pas eta Triki-zio taldek txandea



Jai-egitaraua

Azaroaren 11n, eguaztenean. San Martin eguna

11:00: Meza nagusia
19:00: Txupina eta pregoia, Lagatzu euskera alkartearen eskutik
19:00: Kartel Txapelketearen irabazleari saria emotea
19:00: Gozokiak, eta kalejira buruhan-diakaz

Azaroaren 12an, eguenean. San Martintxu eguna


11:00: Meza nagusia
11:00: Kopaua, frontoian
16:00: Mus eta Briska Txapelketak, Adintsuen Etxean

Azaroaren 13an, barikuan

17:00: Gazteentzako tailerrak
19:30: Batukada kalejira
23:00: Kontzertuak: Lor + Triki Take + Dj

Azaroaren 14an, zapatuan

11:00: Umeentzako jokoak eta puzgarriak
11:30: Kalejira
13:00: Fanfarrea, tabernarik taberna



15:00: Herri bazkaria, fanfarreak giro-tua

16:00: Narcis Rocaren motor erakustaldia, Kotxozulo parkingean

17:00: Koadrilen arteko erronka

20:30: Kontzertua elizan: ZK2 + Co

23:00: Kontzertuak: The Uski's + Obrint Pas + Triki-zio

Azaroaren 15ean, domekan

09:00: Mortzila V. Txapelketea

11:30: Kalejira


12:00: Meza Nagusia

12:30: Dantzak, Sabino Arana plazan

18:00: Etorkinentzako jarduerak



GAMINIZ JATETXEA




Telefonoa: 941 26 11 22
www.gaminiz-jatetxea.com

Donostia 20.2. Pasaia Ibarretxe
48100 Zamudio - Araba
Lagatzu Herri Batzardea

www.gaminiz.com



Hotelak Parke - La Alameda, 228
48100 ZAMUDIO (ARABA)
Telefonoa: 94 103 88 00
Faxa: 94 103 88 01
e-mail: hotelak@hotelak.com
e-mail: reservas@hotelak.com
www.hotelak.com



A large group of people, mostly women, are seated at long tables covered with white cloths, eating and talking. The room has a green wall and a large window in the background.

 **Unternehmen im Schulbuch**
ZAMUDIO

Contenuto del 4°
Indice delle 12 ore: **Matematica** 120 - **Italiano** 120 - **Scienze** 120 - **Storia** 120 - **Geografia** 120 - **Arte e Musica** 120 - **Religione** 120 - **Spagnolo** 120 - **Francese** 120 - **Portoghese** 120 - **Latino** 120 - **Greco** 120 - **Altre lingue** 120

[illegible]

"Sortu Larrabetzu" aurrera doa, herri-partaidetza bultzatzen

t: Ines Serrano / a: Alberto Albaizar

Udalak "Sortu Larrabetzu" partaidetza prozesua jarri zuen abian iaz. Helburua hau da: Hiri Antolaketarako Plan Orokor Berria eratu, herritarren artean ahalik eta adostasun mailarik altuena lortuz. Eta horretarako, Hirigintza Kontseilu Sektoriala sortu zen, alderdi politikoek eta herritar batzuek osatzen dutena. Denontzako eta etorkizuneko Larrabetzu orain diseinatu beharra baitago, eta herritarren irizpideak garrantzitsuak dira aurten gaurkotu behar diren arau subsidiarioak era egokian eratuko badira.

Larrabetzuarrek aukera izan dute galdetzeko euren buruari nolako herria nahi duten. Izan ere, aurrerantzean nahi den parajea irudikatzen denean, hainbat auzi eta arlo hartu beharko dira kontuan: erai-kin zaharrak eta berriak, zerbitzuak, hornidura, hedapena, itxura, erosotasuna... Lur-zoruaren erabilpena eta erabilpenaren intentsitatea, azken batean.

Proiektua ezagutzera emateko, aurkezpen-ekitaldia antolatu zen frontoian apirilean. Proiektuaren nondik norakoa, filosofia eta bestelako zehaztapenen berri jaso zuen han batutako jendetzak. Harrezkero beste jarduera eta saio batzuk ere egin dira.

Esperientzia arrakastatsuak

Inkesta egin zaie 303 laguneri, eta bloga zabaldu da Interneten. Blog horretan ekarpenak egin dituzte herritarrek hainbat arlotan: hirigintza, ekonomia eta enplegua, hornidura eta ingurumena, esate baterako. Era berean, iradokizun-ontziak ipini dira dendetan, tabernetan,



Apiriletik abuztura bitartean, hainbat ekimen burutu dira etorkizuneko Larrabetzu eraikitzen hasteko: inkestak, iradokizun-ontziak eta txotx kafea, besteak beste. Lantaldea martxan dabil berriro.

banketxeetan, Kultura Etxean..., eta batzar bereziak egin dira ume, nerabe, gazte eta bestelako eragileekin. Ideiak batzeko taulak jarri dira kalean, eta hitzaldiak antolatu, hirigintza arloko informazioa argitu eta eztabaida guneak sortzeko. Txotx kafea ere egin da. Larrabetzuarrek, kafe bana hartzen zutela, hainbat gairen gaineko iritzia elkartrukatu dituzte.

Udan zehar jasotako informazioa aztertu eta Plan Orokor Berriaren beste irizpide batzuk ezarriko dira. Talde tekniko

batek Planaren aurrerapena idatzi eta aukera ezberdinak eskainiko ditu, herriak bere iritzia ematen jarrai dezan. Kontseilua lanean hasi zen berriro irailean.

Zaila da egitasmoan zenbat jende parte hartzen dabilen imajinatzea. Baina esperientziak hortxe daude eta guztiak ondo eta gogoz hartu dira. Aurkezpen ekitaldian partaide batek esan zuen moduan, "garrantzitsuena ez baita soilik helburua; prozesu bera helburua bezain garrantzitsua da, inolako zalantzarik gabe".




Zerbitzuak

- Penintsulako/nazio zerbitzua
- Probintzia zerbitzua
- Herrialde zerbitzua
- Irlako zerbitzua
- Irlako zerbitzua, hegazkinez
- Eguneroko balizaren zerbitzua
- Premiazko zerbitzua, egun berean
- Promozioetarako zerbitzua. Kanpai-nak / Masiboak
- Bestelako premiazko zerbitzuak

ETXERAINO

TIPS@
TRANSPORTE INTEGRAL PROFESIONAL



Banaketako profesionalak

ETXERAINO banaketa enpresa Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) kidea da eta lotura estua du TIPS@ paketeriaren Estatu mailako garraio enpresarekin. ETXERAINOK Txorierrin, Mungialdean eta Bermeon eskaintzen du zerbitzua.

ETXERAINO banaketa enpresak Euskal Herrian egiten du lan; hala ere, badu azpiegitura zerbitzua Estatu mailan ere emateko. Hori TIPS@ enpresaren bitartez egiten du. ETXERAINOK hainbat sare ditu banaketarako, eta 100 langile baino gehiagok osatzen dute bere lantaldea: sare arduradunak, komertzialak, administrariak eta banatzaileak, tartean.

Enpresak urteak daramatza prentsa banatzen, eta orain beste esparru batzuetara zabaldu du bere jarduera. Horrela, egunkariak, aldizkariak eta propaganda etxez etxe banatzeaz gainera, paketeria zerbitzuak eskaintzen ditu eta publizitatea banatzen du automobilen haizetakoe-

tan. Kartelak jartzeko zerbitzua ere badu.

ETXERAINOK osoko zerbitzua eskaintzen die bezeroei. Haien asmoen eta helburuen arabera, edozein euskarriren diseinua eta banaketa egiten dute: foiletoak, diptikoak, aldizkariak... Inpresioaz ere arduratzen dira, bidalketa, epe eta jasotzearen inguruko gestioak bezeroei erraztuz.

ETXERAINO eskarmentu handiko enpresa da eta banaketa aukera ezberdinak aztertu eta proposatzen dizkie bezeroei. Era berean, bezeroak nahiago duen banaketa mota egiten du. Bezeroak nahi dituen zerbitzuak eska ditzake, zatika edo denak. Kontratatu nahi dituen zerbitzuak

aurrekontu bakar batean jasoko ditu.

ETXERAINO enpresaren lantaldearen ardura nagusia eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea bermatzea da. Horretarako, arreta pertsonalizatua ematen die bezeroei, ibilbideak berraztertzen eta egokitzen ditu eta sakon egiaztatzen du banaketa, hura garaiz hel dadin hitzartutako lekura.


Informazioa:

Tel: 94 452 50 86

Faxa: 94 452 50 88

jbringas@etxeraino.net

**Torrelarragoiti Ind., P-7B, 1. Pab.
48170 Zamudio**



“Ahots-espektakulu sinfoniko zir

Mankomunitateak 20 urte bete ditu eta, urteurren hori ospatzeko, *Luz interna* saioa egin zen Larrabetzun

a: Gaztelumendi Abesbatza

Tirri Tarra Pasai San Pedroko fanfarreak *Luz Interna* ikuskizuna eskaini zuen irailan, Larrabetzun. Musika ikuskizun hori taldearen *Luz Negra/Argi Beltz* diskoaren eta prestatzen dabilen *Internas* lan berriaren arteko fusioa da, eta Mankomunitatearen 20. urteurrenaren haritik aurkeztu zen Txorierrin.

Gipuzkoako lagunekin batera, Sotto Voce Donostiako orkestra eta Intxartu Algortako abesbatza ere ibili ziren eszenatokiaren gainean. Baita Txorierriko zenbait abesbatza ere: Gaztelumendi Larrabetzuko abesbatza, Zamudioko Kamara Korala, Sondikako Agrupación Coral Olagüe, Txuma Olagüe Sondikako abesbatza eta Ekidazu Lezamako abesbatza. Guztira, 120 lagun aritu ziren ikuskizunean: 40 musikari, eta 80 abeslari. Igor Carballo Tirri Tarra taldekidearen ustez, “ohore handia da tokian tokiko abesbatzek gure musika kantatzea. Abesbatzek izugarritzko ilusioa adierazten dute eta, horregatik, kontzertu guztiak ezberdinak dira; eta Larrabetzuko sekulakoa izan zen”.

Jesús Antruejo Gaztelumendi Abes-

“Tirri Tarrak taldeak antolatutako kontzertuak 120 lagun bildu zituen eszenatokian”

batzaren zuzendariaren ustez, “ahots-espektakulu sinfonikoa” da *Luz interna*. “Orkestra baten atal guztiak (kordak, haizea, perkusioa), eta musika modernoaren elementuak (instrumentu elektronikoak, sintetizadoreak, gitarrak, bateria...) uztartzen ditu”. Leo Aurrekoetxea abesbatza-aren presidentek oso “interesgarritzat” eta “dibertigarritzat” jo du egitasmoa. “Musi-





raragarria"

kaz gozatu, eta Txorierriko koralek arteko harremanak sendotzeko aukera eman digute".

Guztira, 600 musikazalek ikusi zuten zuzenean ikuskizuna. "Eta hori asko da horrelako kontzertu baterako! Amaitu eta gero entzule asko hurbildu ziren zorionak emateko. Oso pozik gaude", adierazi digu Leo Aurrekoetxeak. Publikoa ere gustura ibili zen. "Zirrargarria izan zen", aipatu digu Lezamako Xabierrek. Zamudioko Arantza bat etorri zen harekin: "Ikuskizun ezberdina eta polita eskaini digute: musika, ahotsak..."

Talde abangoardista

Tirri Tarra taldeak Pasai San Pedron sortu zen 1973. urtean. Hasiera-hasieratik talde abangoardista izan da. Kale-jiretan hasi zen, baina 90eko hamarkadan genero berri bat sortu zuen, nolabait esanda, musika, antzerkia eta dantza uztartuz. Tirri Tarrak *Luz Negra/Argi Beltz* diskoa kaleratu zuen 2006. urtean. Bertan ñabardura klasikoak, folkak eta rockak egiten dute bat. Proiektua Euskal Herriko gainontzeko abesbatzei zabaldu die eta, bertan ez ezik, Estatuko hainbat herrialdetan ere eraman dute eszenatokira.



TXORIERRA
KORALEK

koralek...
koralek...
koralek...

Coralek eta Txorierrako koralek
ITE IKUSKIZUNA
Ostiralean, 10.00etan

PROGRAMA:
- Koralek...
- Koralek...
- Koralek...

IKUSKIZUNA:
- Koralek...
- Koralek...
- Koralek...

IKUSKIZUNA:
- Koralek...
- Koralek...
- Koralek...

IKUSKIZUNA

Ikusiz

Ikusiz

Ikusiz

LEZAMAKO

LEZAMAKO

LEZAMAKO

LEZAMAKO

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

IKUSKIZUNA

“Euskerea uste baino leku gehiagotan erabili daikegu”

IXONE ZUBIETA | Tximintx Derioko euskera alkartearen koordinatzailea

Ofizialki 2003. urteko otsailean eratu bazan be, Tximintx Derioko euskera alkarateak 2002ko irailean emon ebazan lehenengo pausoak. Urte horretan alkarateak lehenengo aldiz hartu eban parte Ipar-Alde abesbatzak garai hatan antolatzen eban Olentzero ekimenen. Gaur egun, TOTOAN Txorierriko Euskera Alkarateen Federazioaren partaidea da.

t: Itxaso Marina / a: Tximintx

Zelan urten zan alkarate sortzeko ideia?

Talde eta ekintza asko hasten diran legez: lagunartean. San Isidro jailetako azokan, txakolin batzuk edan ostean, alkaritzketa euki geunduan eta honetaz konturatu ginan: herriko euskaldun eta euskaltzaleok, hainbat faktoreen eraginez, ez ginan gure artean berba egiteko kapaz. Eta aitatu zan adibiderik garbiena hau izan zan: alderdi politiko batekoek ez eben berba egiten beste alderdikoakaz. Ezberdintasunak albo batera itxi eta berdintasunean oinarritutako zerbait egitea pentsatu genduan. Uda ostean bildu ginan, eta, ahoz aho, derioztar euskaldun talde bat osatzea lortu genduan.

Zergaitik Tximintx? Zer esan gura dau berba horrek?

Tximintx berbak “zimintz” (chinché, gaztelaniaz) esan gura dau. Gotzon Garteren esaera zaharren bilduman

“Ez gara kultura ekitaldietara bakarrik mugatzen, euskerea askoz gehiago dalako”

“Derio tximintx herria” esaldia irakurri genduan, eta Larrabetzukoei “akerrak”, Lezamakoei “zorriak” eta Zamudiokoei “perretxiko ustelak” esaten jaken legez, derioztarroi “tximintxak” esaten jakula konturatu ginan.

Zenbat kide zarie alkaratean?

Zazpi urtetik 87 urtera bitarteko 105 bazkide inguru, baina beharrean gabilzan gehienok gazteak gara. Bileretan 10 lagun batzen gara hamabostero. Gurea talde irekia da, eta laguntzeko prest dagoan edonor jarri daiteke harremanetan gugaz, tximintx@gmail.com helbide elektronikoan edo 635 37 35 95 telefono zenbakira deituta.

Zuen helburua euskeraren erabile-

rea eta zabalkundea bultzatzea da. Zelango ekitaldiak egiten dozuez horren haritik?

Ez gara kultura ekitaldietara bakarrik mugatzen, euskerea askoz gehiago dalako. Ahalegina egiten dogu tradizioak mantentzen (Olentzero, txarriboda-bertso bazkaria eta kanpora martxo); jailetan euskeraren presentzia bermatzen (kontzertuak eta txosna); eta euskaldun barriei lagundu eta euskal guneak sortzen (Bibalagun proiektua). Era berean, umeakaz egiten dogu behar Derioko euskeraren geroa diralako. Halan, urtean zehar eurei zuzendutako aisialdiko ekitaldiak antolatzen doguz eta aurrean Kukuke antzerki eskolea jarri dogu martxan guraso alkar-teagaz batera. Derioko euskeraren azterketa be egin dogu, eta hori *Derioztarren euskerea* liburuan jaso dogu. Euskerea herriko edozein txokotara zabaltzen dogu eta “Derioztarrak bost kontinenteetan” berbal-di-saioa, esaterako, adibideetarikoa bat da.

Sasoi onean dago euskerea Derion?

Inkesten arabera, Derio euskaldun kopuru handiena



*“Euskerea gero eta
gehiago entzuten da
guraso gazteen
ahotan; oso positiboa
da hizkuntzaren
transmisioari begira”*

dauan Txorierriko herria da. Nahiz eta praktikan ez igarri, berton erdaldun asko be badoguz-eta. Baina, nire ustetan, aita-garria da euskera gero eta gehiago entzuten dala kalean, guraso gazteen ahotan, batez be. Eta guk oso positibotzat jotzen dogu hori, hizkuntzaren transmisioari begira gehienbat.

Zer proposatzen dozue, euskerari bultzadea emateko?


Jenteak lotsa kendu eta euskerea txoko guztietan erabitzera ausartzea. Egin eta gero, erraza dala ikusiko dabe-eta. Ganera, euskerea uste dogun baino leku gehiagotan erabili daiteke: denda



txiki zein handietan, tabernetan, udale-txean...

Zelango harremana dozue herriko alkarteakaz?

Oso ona. Ipar-Alde abesbatzazagaz Olentzero prestatzen dogu; San Isidroko jai-batzordean hartzen dogu parte kultura taldeakaz; Korrikaren batzordean, AEK-gaz...





GONDOKO KULTUR ETXEA
Gondoko Kalea, 1 (Jelkuntza etxea)
Telefonoa: 94.453.64.13

Hasierako 14an, 17-18etan



**MARTINGALA
TUTEK ERE
CLOWN**

12 urte 14
14 urte 16

ANTZERKIA
Antzerki taldea: ELKARTEA

COCIDITO MADRILEÑO 2
Calle Calle Madrileño 2

Kalera eta 10'



ZINEA

ORDENA: 14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30

Hasierako 14'
1 DE INICIO DE CORALINA
(140)

Hasierako 15'
LA PANTERA ROSA 2
(140)

Hasierako 16'
MONSTRUOS CONTRA ASTROCIDAS
(140)

Hasierako 17'
COMO JUELA
(140)

Hasierako 18' Hasierako 19' Hasierako 20' Hasierako 21' Hasierako 22' Hasierako 23' Hasierako 24' Hasierako 25' Hasierako 26' Hasierako 27' Hasierako 28' Hasierako 29' Hasierako 30'

VERBA ET IMAGINES

VERBA ET IMAGINES

El libro de la historia de la cultura vasca
El libro de la historia de la cultura vasca
El libro de la historia de la cultura vasca

bbk

El libro de la historia de la cultura vasca

VERBA ET IMAGINES

VERBA ET IMAGINES

El libro de la historia de la cultura vasca

VERBA ET IMAGINES

El libro de la historia de la cultura vasca



Solidaritateak ez dau adinik

Txorierri eskualde solidarioa da. Horren adibidea munduko hainbat txokotara, era baten edo bestean, laguntza eta alkartasuna eroan dabezan txorierritarren zerrenda luzea da. Halanda be, borondatezko lankideak gazteak izaten dira normalean; Mari Carmen Benito eta Josu Barrena Lezamako senar-emazteak araua hautsi egin dabenetarikoak dira.

Besteengaitik zerbait egiteko grinea eben aspaldirik eta “erdi erretiratuta” dagozala aprobetxatuz, hiru hilabetean egon dira Behar Bidasoa GKEk eta Ahizpa Pasiotarrek Pereiran daben garapen proiektuan, Kolonbian.

Bizitza ez da bape erraza Pereirako biztanleentzat. Baliabide gitxi eta arazo handiak dituan herria da: pobrezia, droga, indarkeria eta familiako gizonen arduragabekeria, esaterako. Garapen zentroan 160 umeri emoten jake jaten, eta 40 ama gazte eta 60 aitona-amona zaintzen dabez. Mari Carmen eta Josu arazo barik egin ziran zentroaren erritmora eta ahal izan daben guztietan hartu dabe parte: erizaindegian, umeei zuzendutako ahortzen osasuna zaintzeko programan, jantokian, ama gazteentzako ikastaroetan, aitona-amonentzako terapietan... Bikoteak ezinbestekotzat jotzen ditu zentroan dagozan beharrerako prestakuntzako lantegiak, “bertan jasotako ezagutzak aukerea emoten deuselako behar mundura sartzeko. Ganera, euren negozioa be jarri daikie, eta ikasi dabena etxekoei irakatsi”. Besteak beste, okintza, zapatagintza, joskintza eta edergintza tailerak ipini dira martxan. “Halanda be, diru falta oztopoa izan daiteke batzuentzat, banketxeak mikrokreditoak emoteko uzkurak dira-eta”. Tailerrek kanpotik jasotzen diran diru-laguntzei esker irauten dabe, “hango instituzioek ez deusie dirurik emoten zentroari”. Era berean, hango familiek eta enpresek be dohaintzak egiten dabez, eta horregaz apurka-apurka aurrera ateratzea lortzen da.

Betiko arantza

Zentrokoiei bitxia suertatu jake lezamarren adineko lagunak hara joatea. “Jente gazteagoagaz behar egiteko ohi-urea dabe. Baina guk abantaila eroan



“Indar barik sentitzen zara, ezin zarelaiko danera ailegatu”

deutsegu: bidaia ez dogu beste herri bat ezagutzeko nahiak bultzatuta egin, eta oso inplikazio handia izan dogu zentroan eta bertokoen beharizanetan”. Istorio asko ezagutu dabez zentroan, gogorrak, oilo-eperdia ipintzeko modukoak, eta asmoak be itxi dabez bete barik. “Ahal dana egiten da. Indar barik sentitzen zara, ezin zarelaiko danera ailegatu”. Senar-emazteen ustez, ardurea, ikastea eta beharra dira marginalitatetik ateratzeko gakoak, “baina erraza da guretzat. Nola sartu buruan balore horreek egoera horretan bizi behar dan bati? Frustrazio handia dago eta auzokideak dauana gura dabe, lege kontrako bideen bitartez lortu badau be”.



Borondatezko lankide moduan izandako lehenengo esperientzia erabat aberasgarria izan da Mari Carmen eta Josu-rentzat. Pereirara laguntza gehiago eroan eikien, eta gauza gehiago egin eikien bertan... betiko arantza. Gogoan hartu dabe egin eta esan barik itxi daben guztia, eta inoz hara bueltatzeko asmoa ere erakutsi dabe. Beste askorena moduan, lezamarrren ekarpena txikia izan da, baina oso garrantzitsua.

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

–Egun on Txori!

–Halan ekarri Luki!

–Lezamako istripua zer neska? Itzelezko danbadea hormearen kontra! Hileko bat-eta! Zaurituetarikoak bion ezagunak! Zelan **paseu** leiteke hori?

–**Eztaipanipa!** Tren gidariari, hil danari botatzen deutsie batzuk errua, arinegi joan dalako. Jendeak zer daki? Kontua da 2009an lanean hildako 70. behargina izan dala.

–Istripu hau, neskato, zoritxarrez, ez da lehenengoa. Badakizu Bilbon badana kalea “Lezamako trenbide zaharra” deritxana. Handixe pasetan zan antxinako Lezamako trena, 1898an inauguratu zana. Zorigogorrez, 1900ean, urten egin eban errailetatik, eta 1901ean lokomotora bat lehertu jakon. Arrazoi horregaitik-eta, aldatu egin zan; oraingo trenbidea ez da ordukoa. Gaurkoa, 1908an inauguratu zan. Holakoak kontauta, bataren batek kaminoa seguruagoa dala esan leike.

–Bai zera, Luki. Ez da urte askorik itze-
lezko istripua ikusi nebala Larrabetzutik
Lezamarako bidean. Derioko Institutura
etozan lau ikasle kotxean –denpora sobra
barik– eta Larrabetzutik Lezamarako zat-
tian astoa plantau jaken bide erdian bela-
rri eta guzti, ez arre, ez iso. 120 zaldiko
autoak astoa jo eta **zentailea laseko** tris-
kantzea: gazteak arrakalaz beterik, beso-
ren bat apurtuta-eta, baina **sugertez**, bi-
zirik. Astoa, ostera, burua haizetako krista-
letik barrura. hilik.

Istripuak Lezaman

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa




–Ostea, haxe nahastea aseguruoa-kaz-eta. ez?

–Asegurukoak epaiketarako datuak batzen ibili ziranean **(h)arrantza** eta honantza, istripua ikusi eban amama moinodunak **konteu** eutsien asto difuntuak

sarri-sarri gurutzatzen ebala kaminoa
auzoko asto emeari bisita egiteko.

–Asto horrek, Txori, bihotza eukan be-
larriak baino handiagoa. Bego zeruetako
lantzarrean aske ze, *solte dagoan astoa*
bedar txarrera eztoa. (Phelixier).






Gurpide alkarteak lekukoa hartu dau Larrabetzuko Produktuen Azokan

a: Miguel A. Lucena, Jon Rozadilla

Urriaren 17an, zapatuan, Bertoko Produktuen Azokea egin eben hamaikagarren aldiz Larrabetzun. Azokea Arrekikili euskera alkarteak antolatu dau joan dan urtera arte, baina aurten Gurpide alkarteak hartu dau ha prestatzeko ardurea. Gurpide herriko ekoizle eta kontsumitzaile batzuek osatzen dabe eta helburu honek dabez: kalitatezko produktu naturalak bultzatzea, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko hartu-emona berreskuratzea eta baserri ingurua sustatzea.

Azokean 25 saltoki imini ziran eta larrabetzuarrek zein haraino hurbildu zirenek herrian bertan ekoiztutako produktuak erosteko aukerea euki eben. Ekitaldian Mugarik Gabeko Ingeniariak taldeak hartu eban parte eta lau eguzkiko sutegi jarri ebezan ikusgai. Sutegietan txorizoa eta pistoa prestatu ebezan.

Antolatzaileek baserri bateko prentsa bat eroan eben plazara eta han sagarrak



Lezamako azoka

zapaldu ebezan. Zukua azokan egozaneiz emon eutsien dastatzeko.

Eguerdian herri-bazkaria egin eben eta bertan 130 lagun inguru batu ziran. Arratsaldean bertso-poteoa izan zan herriko tabernetatik.

Gurpide alkarteak azokea aprobetxatu eban bere jardurea herritarrei ezagutzera emoteko. Halan, berriro erabil daitezkean poltsa birziklagarriak oparitu, eta liburuxkak banandu ebezan. Liburuxka horreetan produktuak etxetik etxetik saltzen

dabezan ekoizleen kontaktua azaldu dabe, baita menuetan bertoko produktuak erabiltzen dabezan herriko taberna eta jatetxeen ganeko informazioa be. Jakinarazo eben moduan, datozen hilabeteetan kontsumoaren ganeko jardunaldia antolatuko dabe.

Lezaman eta Loiu be izan dira azokak

Beste alde batetik, Nekazaritza I. Azokea egin zan Lezaman urriko lehenengo domekan.

Guztira 40 saltoki imini ebezan, eta, besteak beste, produktu honek egon ziran salgai: txakolina, gaztaia, kontserbak, euskal pastela eta barazkiak. Ekintzarik arrakastatsuenak piperren dastatzea izan zan.

Loiun Gastronomía eta Euskulangeritzako Azokea izan zan urriaren 18an. Azokeak 27. edizioa bete dau aurten, eta, aurrekoetan bezala, erabat arrakastatsua izan da, hara milaka eta milaka lagun hurbildu ziran-eta.

Hasiera eman diete Artxandako trenbide-tunelaren beharrei



Iñaki Arriola Garraio sailburuak, Gorka Carro Sondikako alkateak eta Iñaki Azkuna Bilboko alkateak Bilbo eta Iztartza auzoa lotuko dituen Artxandako trenbide-tunelaren lehenengo harria jarri dute. Azpiegitura aireporturaino ailegatuko da etorkizunean.

Proiektuak hiru fase ditu. Lehenengo fasean, tunela eraikiko da Matikotik Iztartza Sondikako auzora arte. Tunela metro-

ko 3. linearekin lotuko da eta Durangaldea eta Busturialdeko tren zerbitzuak Txorierrira, trenetaz aldatzerik egin gabe, ailegatu ahal izatea ekarriko du. Aurreikuspenen arabera, 28 hilabete emango dituzte beharretan.

Bigarren fasean, tren geltoki berria egingo da Iztartza auzoan eta Sondikako gaur egungo trenbidea ere moldatuko da. Hirugarren fasean, beste trenbide bat

Azpiegitura aireporturaino ailegatuko da etorkizunean

zabalduko da Sondikatik aireporturaino. Trenbidearen Lurralde-plan Sektoriala onartu zenean, Udalak hirugarren faseko tarte hori lurpean egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, eta horrek hala egiteko konpromisoa hartu zuen. "Oraindik ez dakigu noiz hasiko diren bigarren eta hirugarren faseak. Fase horiek biak oso inportanteak dira herriarentzat eta adi egon beharko gara, ea esandakoa betetzen den".

Carroren esanetan, proiektuak onura garrantzitsuak ditu Txorierrirako. Horrela, trenen maiztasuna handiagoa izango da eta tunela ere gaur egungoa baino askoz seguruagoa izango da. "Ebakuazio-irteera bi egongo dira; bata Matikora joko du; eta besteak, orain erabiltzen den tunele-
ra". Azken hau zerbitzuz kanpo geldituko da eta Sondikako Udalak bertan oinertzako eta txirrindularientzako bidegorria egiteko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari.



aisia PHOTO

Zanburuak, txakurrak, txakurrak
2009ko 10/11/09
T. 94 4217000
www.aisia.com

BASERRI menua

1. txakurrak, txakurrak, txakurrak
2. txakurrak, txakurrak, txakurrak
3. txakurrak, txakurrak, txakurrak

29 €

gaur egun
5.000.000
(10.000.000)



LEHIAKETA

**Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA**

**Nortzuek bihurtu
dituzte egia
euren ametsak?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
-Telefonoz: 94 452 34 47
-e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna: Oso modernoa da,
baina inportanteena oso erraz irakurtzen
dela da, eta hori mantendu duzue
Irabazlea: Ainhua Bilbao

Bakoren bazterra**Mahats-bilketaren liburua;
natura jaun eta jabe da***Iñaki Suárez, sumillerra*

Goiz berezi bateko goizeko 9ak dira; baserrira autoak etorri izanak gaur beste-lako jarduera egingo dela iragarri du. Poztasun eta urduritasunaren nahastea dago inguruan: poztasuna, elkartzearengatik eta urte osoan zehar mimatu den fruitua (garbiketa, inaustek, mantentze-lanak...) jasotzeak dakarren jaiarengatik; eta urduritasuna, Bizkaian duela gutxi bota dituen eurite gogorarengatik, zeinek, gure ustez, mahastian eragina eduki ahal izan baitute.

Eskularruak eta artaziak eskuetan ditugula, lagunarte atseginean eta umore onez, mahastitik banandu gara kutxa hustik bilduz, eta ekin egin diogu lanari. Niri egokitu zaidan lan-eremuan lagunak berehala hasi gara elkarri begiratzen, eta norbaitek "mahats-mordo honek balio du?", "hau botatzekoa da, ezta?" galdetu du. Mahats-mordoak kontu handiz joan gara garbituz, brotitisa kenduz eta gaitzik gabeko mahats-mordoak ia besarkatuz. Momentu horietan ardo munduari buruz kalean entzuten diren topikoak etorri zaizkit gogora: mahatsez beharrean hautsez egiten dela, ardoa ekoiztu eta saltzea aukera aparta dela, eta abar... Lagunari



begiratu diot aurpegira, eta hunkitu egin nau gauzak batzuetan horrela datozela eta gogo onez onartu behar direla esan didanean. Hamarkadako uztarik onena izatekoa zela azaldu dit, baina baserritarren bizitzan badago jaun eta jabe den eragile bat: natura. Naturak drama bihur dezake urte osoko lana, baina, aldi berean, magia ere bai. Horregatik da ezberdina botila bakoitza, urte bakoitza, inguru bakoitza. Horregatik esaten diote lana, beharbada; nik artea esatea nahiago dut. On egin.


Etxeko sukaldaritza**Piper beteak***Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 18 pikillo piper
- Kipula bi (txikituak)
- Berenjena erdia (txikitua)
- Piper berde bi (txikituak)
- Azenario bat (egosia)
- Koilarakada bat Maizena
- Kikara bat esne
- 200 ml esnegain
- Oliba-olioa eta gatza

Prestatzeko area:

Betegarria: kipulea eta piper berde bat erregosiko doguz. Eginda dagozanean, berenjenea gehituko dogu. Eragin, eta bost minutuan izango dogu prijitzen. Ondoren, gainerako osagaiak botako doguz: azenarioa, pikillo piper bat, Maizena (eragingo dogu), esnea eta gatza. Su motelean egosiko dogu minutu bian, eta, loditzen danean, erretilu baten iminiko dogu. Hotzitzen itxiko dogu.

Saltsea: kipula bat prijiduko dogu. Piper berde bat gehitu eta, bigunduta dagoanean, pikillo piper bat botako dogu. Esnegaina bota, eta gatz apur bat ere bat. Ondo irabiatuko dogu. Lodiegi badago, esne apur bat botako dogu. Piperrak betegarriagaz bete eta saltsea ganetik botako dogu. Berotu eta zerbitzatu egingo dogu.





Amagoia Gezuraga

–*Haragiaren gauak eta egunak.* J. M. Irigoien.

–*Arrain abisalak*. Xabier eta Martin Etxebarria.

–*Aulki jokoa*. U. Alberdi.

–Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila (1810-1940). J. Kintana.

–*Rita eta hilobi lapurrak*. M. Valverde.

–*Martin egon geldi.* L. Bilbao.

–*Printzesa begi-zulo*. J. Igerabide.

–Marco Polo abenturazale. S. Cordon.
Irakasle desagertuaren kasua. J. Friedrich.

-10 tanta. Alos Quarte. 1999an sortu-tako taldea. Musika klasiko nahiz modernoan ibilbide artistiko zabala duten musikariek osatuta dago.

–Zubia. M. Urdangarin.

–Taxirik ez. J. Muguruza.

		4			6			
	6	3					4	
9		1	3				8	
		5			4	8		
8		9	7		3			5
		7	1			9		4
3		2			1	6	7	
							5	3
			5		7	4		

5	8	4	2	7	6	3	9	1
7	6	3	8	1	9	5	4	2
9	2	1	3	4	5	7	8	6
6	1	5	9	2	4	8	3	7
8	4	9	7	6	3	2	1	5
2	3	7	1	5	8	9	6	4
3	5	2	4	8	1	6	7	9
4	7	8	6	9	2	1	5	3
1	9	6	5	3	7	4	2	8

[illegible]

Antzerkia eta filmak

Derio

- > *Teleipuina*, Antzezkiuna txotxongilo taldearen eskutik. Azaroaren 6an, 18:00etan, liburutegian.
- > *Sólo mía zine-foruma*, Garbiñe Etxebarria psikologoarekin. Azaroaren 27an, 19:00etan, Gurea Aretoan.

Erakusketak

Derio

- > "Bizitza minatuak", Gervasio Sanchezen eskutik. Azaroaren 5etik 26ra, kiroldegian.
- > Perretxikoen argazkiak. Azaroaren 12tik 30era, CANen. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Mikologia erakusketa. Azaroaren 15ean, 10:00etatik 14:00etara, Sollube kalean. Untza mendi taldeak antolatua.



Unai Kastresana



Argazkia: Patxi Arias

Hitzaldiak

Derio

- > "Perretxikoak: jateko onenak eta pozoitsuenak", Plácido Iglesiasekin. Azaroaren 12an, 19:00etan, CANen. Untza mendi taldeak antolatua.
- > "Genero indarkeria, familiaren baitan", Miren Olga Macíasen eskutik. Azaroaren 24an, 17:00etan, Larrabarri base-rrian. Sutondoan elkarteak eta Udalak antolatua.

Lezama

- > "Pilar del Cantábrico" proba, Unai Castresanaren eskutik. Azaroaren 27an, 20:00etan, Uribarri topalekuan. Gailur mendi taldeak eta Udalak antolatua.

Irteerak

Zamudio

- > Palomares – La Guardia. Azaroaren 29an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Derio

- > Perretxikoak jasotzera. Azaroaren 14an, 08:00etan, udaletxearen aurrean. Untza mendi taldeak antolatua.

Lehiaketak

Zamudio

- > Orri markatzaile lehiaketa. Azaroaren 21ean, liburutegian.

Musika

Derio

- > Ipar-Alde abesbatza. Azaroaren 21ean, 19:00etan, San Isidro elizan.

Tailerrak

Derio

- > CSI tailerra. Azaroaren 7an, liburutegian.

Bestelakoak

Derio


- > Genero indarkeriaren aurkako manifestazioa. Azaroaren 25ean, 19:00etan, San Isidro elizan. Sutondoan elkarteak eta Udalak antolatua.

Zamudio

- > Liburu rallya. Azaroaren 28an, liburutegian.

Larrabetzu

- > Gabonetako Postalen Lehiaketa. Epea: azaroaren 13ra arte.
- > Gabonetako ekintzak. Izena emateko epea: azaroaren 27ra arte.
- > Tai-Chi ikastaroaren gaineko bilera. Azaroaren 12an, 18:00etan, Anguleri kultura etxean.





The Spine Institute
 10000 Wilshire Blvd.
 Suite 1000
 Beverly Hills, CA 90210
 (310) 276-1000
 www.thespineinstitute.com




Cianoplan S.p.A.
global printers

Piazza T. d'Azeglio 105 v. 1/a
40139 ZANUDDO
Telefono 04 46171127
cnp@cianoplan.com

- Impresione a plato copiale.
- Controllo qualità online v. 1/a.
- Digitalizzazione, autocorrezione, automazione a laser.
- Impresione online v. 1/a.
- Ora disordinata, lunedì mattina.
- PL e il cliente.
- 100 percento.

Qure gizarte erantzukizunak ingunumena zaintzera behartzen gaitu...



...maila handiko teknologiarekin.

ITT Talcaen ategia handia egiten duen beraketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrenak eta alimendietan 100° galduko neurko datuak direnala iradokitzen. Irabazgaria berarekin gertatzen diren aldaketa guztiak, berarekin integratzen diren datuak. ITT herenegarri, ingurumen alorreko datuak integratzen diren datuak. ITT herenegarri, ingurumen alorreko datuak integratzen diren datuak. ITT herenegarri, ingurumen alorreko datuak integratzen diren datuak.